

ALDAPA BERA

ETA ALDAPA GORA



ANA MARI

Aldapa bera, alai alai, buruban fardel zuri aundiya dubela jaisten da, erbiya bera baño ariñago, Ana Mari gobarazalia: berekin paria egiteko ez litzake guztiz gauza erresa beste bat arkitzia, ain da neskach polit eta liraiña; jantziko balitz aberats modura, emangoluke edozein eche aundiko alaba, bañan nola dan menditarra eziñ izan beste inor Ana Mari gobarazalia baizik.

Nola bakarrik dijoan bidian, zenbait pentsamentu nastutzen ditu bere artian, eta bat batean gelditzen da, zerbait aztu balitzayoke bezela. ¿Zer ote du? ¿norbaitek deitu ote diyo? Ez, ez da entzuten gurdi baten kurpillak egiten duten soñua besterik.

Ana Mari, ori igarririk, ez da bere lekutik abiyatzen; norbaitek izutu nai baldin baluke, ez det uste batere ikaratuko litzakela, ain dago gogoz soñu ori aditzen.

Orla dagola, bertaratzen da gurdiya, eta gurdiyaren atzetik Anton itzaya, garrondo gañetik akullubadakarrela eta ontatik bi besoak zintzillik.

Ana Marik ikusi ondoren esaten dio.

—Oi, Anton-arritu samarrian bezela—Donosti aldera zoaz noski, ¿ala ez da?

—Bai, Ana Mari, ¿zergatik diozu galdeera ori?—eranzun zion, naitasunezko begiratu batetikan.

—Oi... zergatik? ¿Gaizki iduritu altzaizu nere galdeera?

—¿Gaizki?... Bai zera,—eranzun zion, bat batian Antonek nai ez degun gauza bat use ez dala esaten degunian bezela.

—Ala uste nuben.—Segira esan zion Ana Marik.—Anton, nere buruko fardel au gurdira botatzera nua, eta bitartean joango gera biyok alkarrekin. ¿Nai dezu?

—Beñere nere barrenian ez det gozotasun aundiagorik igarri, zuk ori esanarekin baño, Ana Mari.

Rat batian etorri zitzayon algara bat Ana Mariri; ezpain gorri ayen tartetik erakutsirik aiñ ortz churiak, non dizdizaturik arri fiñ baliosoak ziruditen.

—Bai, Ana Mari-Antonek zion, Ana Marik gurdira botiaz fardela.—Ez dakit gaur nola arki izan geran biyok. Nik uste nuen igarriko zenubela, aspaldi ontan, nitzaz zerbait, zergatik...

—Nik zerbait, oi—eranzun zion beriala, eman gabe denborik esateko nai zuben gauza.—Emen aingeruren bat dabil.

—Bai, Mari, aingerua zu zera, eta ez gero nolanaikua; zu izan zera, zuk ez jakiñ arren nik maite izan dedan neskacha, zergatikan zu zeran alakoa.

—Oi, beraz ez banintzan izan zuk uste dezun antzekoa, ez ninduzun maiteko, diozunez.

—Baita izan baziñan ez dakit zer ere, Ana Mari zeran bezela, beti, beti, zuria izango ninduzun.

Ontan, orla zijoazela, aurrari baba darion bezela ezpañetatik, aberi nunbait biotzian isuriko zitzayoten, ta etzan gauza guchiagorako; atzetik zetozen manso manso idiyak, idiyen atzetik gurdiya onen kurpillak soñu egiñaz zerbait esan nayeian bezela, aiñ agertzen zan kanpua sasoi samurrian, nere begiyen aurrian iñoiz agertu ez dan bezelakoa.

Alderatzen ziran Donostira nai bañon lenago; baña nola esan zizkaten elkarri gauzik naigarrienak, orra nola dijoazen oraiñ Anton alde batetik eta Ana Mari bestetik.

Goiz jaikitzen danari Jaunak laguntzen omen diyo, eta orra gure Ana Mari egun sentirako egazti eta ganaduak maniatu, gobara ekarri eta eraman, topatu zeñek maitatu, eta non dijoan len aldapa bera bezela oraiñ aldapa gora.

F. LÓPEZ-ALÉN.

